



TXIKI TTO!

2023ko abendua 220. zenbakia



GABONAK ATE JOKA

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK	11-13
IKASLEEKIN	4-5	LEHIAKETA	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA	15
AITXITXA-AMAMEKIN. .	8-9	ZU BAI MARGOLARI...	16
BERBETAN			
GABONAK.....	10		

 eta kितto!
euskara elkartea

Argitaratzailea
“...eta kितto!”
Euskara Elkartea
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Silbia Hernandez

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Ume batek bere aitari:

- Aita, aita, utziko didazu telebista ikusten?
- Bai, baina piztu gabe!



Ume batek lagunari:

- Nire aitak 10 urtetan ez du ilea moztu.
- Zer da ba? Artista al da?
- Ez, burusoila!

Maisuak ikasle bati esan zion:

- Zenbat dira bi gehi bi?
- Auskalo! datu gehiago ematen ez badidazu...



Ume batek esaten dio emakume bati:

- Ama, ama, eskolan "despistatua" deitzen didate.
- Aizu, haurra, joan zaitez zure amarengana!

- Aita, zuk bronka botako zenioke ezer egiten ez duen ume bati?
- Ez -erantzun du aitak.
- Orduan lasai esango dizut ez ditudala etxerako lanak egin!





Euskal Herriko mitologian murgilduz

Urkizuko eskolan izan gara abenduko aleko inkesta egiten. Euskal Herriko mitologia aztertu dute eta gauza asko ikasi dituzte, lehen ez zekiten gauza asko: Mari, Tartalo, Basajaun... Mundu liluragarria deskubritu dute eta gurekin partekatu nahi izan dute.



BIDEOA





**ARATZ
ASCASIBAR**
11 urte

Euskal Herriko mitologia neolito garaian hasi zen eta gaur egun arte iraun du. Nire pertsonaiarik gustokoena Basajaun da, baserria zaintzen du-eta. Oso ondo pasatu dugu gai hau lantzen eta gauza asko ikasi ditugu, harrigarriak.



**ANE
DIAZ**
11 urte

Euskal Herriko mitologiaren gaia lantzen gauza asko ikasi ditugu, adibidez Amalur dela pertsonai guztietatik garrantzitsuena. Eta Mari dela Amalurraren pertsonifikazioa. Naturan, lurraren barrualdean bizi da, Anbotoko haitzuloetan. Niri gehien gustatzen zaidana Eguzkilorea da, izpiritu txarrak uxatzen ditu-eta.



**ISMAEL
ELHAISSAN**
11 urte

Gai hau lantzen ikasi dugun beste kontuetako bat izan da Mariren kobazuloan egoteko hiru arau errespetatu behar direla: Mariri ezin zaio bizkarra eman, hikaz hitz egin behar zaio eta txanda errespetatu behar zaio. Niri Aker Beltza da gehien gustatu zaidan pertsonaia, indartsua da eta erdia akerra eta beste erdia deabrua.



**IRAIA
BLANCO**
11 urte

Euskal Herriko mitologia Europako beste herrialde batzuetako mitologiarekin desberdintzen da pertsonaiengatik eta hizkuntzarengatik. Gainera, gure hizkuntza da Europako zaharrena. Bestalde, Euskal Herriko etxeetako ateetan eguzkiloreak zintzilik ikusten badituzue, horrek esan nahi du etxe horretatik izpiritu txarrak uxatu nahi direla. Niri gehien gustatzen zaidan pertsonaia Lamia da, uretan bizi delako eta, besteekin alderatuta desberdina delako.



AMAÑA

Azaroaren 13an Gaztainerre ospatu genuen eskolan. Azken urteetan, arratsaldean, herri kirolak egiten ditugu: lokotx bilketa, txinga proba eta zaku lasterketa. Lehen hezkuntzako eta haur hezkuntzako ikasleek parte hartu zuten eta giro paregabea sortu zen. Herri kirolak bukatuta, gaztainak jateari ekin genion. Gaztainak oso goxoak zeuden! Arratsalde zoragarria pasatu genuen! Ondo pasatu Gabonak eta datorren urtera arte, lagunok!



URKIZU



Azaroaren 13an Gaztainerre ospatu genuen eskolan: urtero bezala, Guraso Elkarteak gaztainak erre zituen patioan ikasleen artean banatzeko. Eskerrak emateko, ikasleek, Gaztainerre eguneko abestiak abestu zituzten. Atzegikoak ere etorri dira eskolara “adimen urritasuna”-ri buruz hitz egitera. Oso interesgarria izan zen. 6. mailako ikasleak Zarautzeko EROSKI saltokira joan ziren eta sukaldari baten laguntzaz erosketa egin zuten ondoren menu osasuntsu bat egiteko. Azaroaren 29an, Eibarko tradizioari helduz, San Andres azoka antolatu genuen eskolan. Euskal dantzak eskaini genizkien familiei.

LA SALLE

Azaroan ekintza ugari izan ditugu: Gaztainerre egunean gaztaina goxo eta beroak dastatu genituen, ondoren Haurren eskubideen eguna etorri zen, eta oso polita gelditu zitzaigun horma marrazkiz apainduta... Indarkeriaren aurkako eguna etorri zitzaigun eta horretarako ere, more kolorez jantzi genituen paretak. Sanandresak ere etorri ziren, azoka prestatu genuen, txorizo pintxo eta taloak dastatu... Eguraldiak lagundu zigun eta euskal dantzak dantzatu ahal izan genituen, eskola osoa aurrean genuela. Gabon zoriontsuak!!!





ARRATEKO ANDRA MARI

Kaixo lagunok! Hemen gaude San Andres, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna eta Euskararen Nazioarteko egunak ospatu berri!!! Eta lehenengo hiruhilekoari amaiera borobila emateko, abenduaren 22an, auzoan zehar gabon kantak abestera aterako gara eta ondoren Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita izango dugu eskolan!!! Beno lagunok, ongi pasa oporrak!!!!



talde argazkiak egin genituen. Eta urduritasun apur batekin, familiak agurtu eta beraientzat prestatutako ekitaldia martxan hasi zen. Bazkaldu ondoren jolasak izan genituen eta azkenik, azokara eramandako jaki eta produktu guztien zozketak egin ziren gela bakoitzean. Egun ederra igaro genuen!!!

ITURBURU

Azaroaren 29an, goizean goizetik, 8:30ean hasita, 4.,5. eta 6. mailako ikasleak taldeak prestatzen hasi ziren ikastetxeko ikasle guztientzat, hamaiketako berezi eta goxoa jateko asmoz. Ondoren azoka ikusi eta

ALDATZE

Abenduaren 4an euskararen eguna ospatu genuen, hitz-joko, abesti eta dantzekin. LH2. mailakoek poz-pez hartu zuten, egun honetan, gelara hurbildu zen gure Ainguren bisita. Primerako eguna izan zen! Eta orain badatoz Gabonetako oporrak; hainbeste lan egin ondoren ondo merezitakoak. Ondo-ondo pasatu eta hurrengo urtera arte!



SAN ANDRES

Aurten ere, eskolan, San Andres eguna ospatu dugu. Ikastetxeko neska-mutilek euren etxeetatik ekarritako garaiko barazki, fruta eta fruitu lehorrekin, lekaleekin eta aintzinako tresnekin azoka dotore eta koloretsua antolatu dugu. Bi egun jarraian bisitatzeko aukera izan dugu. Asteazkenean ohiturari jarraituz txorizo eta talo goxuak jan genituen eta arratsaldean euskal dantzak dantzatzeko eta ikusteko aukera izan genuen. GORA SAN ANDRES!



Miriam Horta:

« Jolas elektronikorik ez genuen eta denbora gehiago dedikatzen genion ikasteari »



Amañako eskolan elkartu ditugu Miriam eta Santi amama-ilobak. Eurekin batera egon da Juan Fernando, Kolonbiatik oporretan etorri berri den Santiren anaia. Orain dela bost urte etorri zen Miriam Eibarrera, erretiroa hartuta. Irakasle izan da urte askoan Kolonbian. Solasaldi polita izan dute eta hemen duzue emaitza.

Kaixo amama, zer iruditzen zaizu esperientzia hau?

Zoragarria, ez dut bizi inoiz horrelako esperientziarik.

Noiz eta non jaio zinen?

1956ko maiatzaren 1ean, Kolonbiako herri batean.

Eta noiz eta zergatik etorri zinen Eibarrera?

Orain dela 5 urte etorri nintzen, erretiroa hartuta. Seme nagusia eta alaba hemen zeuden, bilobekin, eta ni bakarrik gelditu nintzen Kolonbian. Horregatik erabaki nuen etortzea.

Zure haurtzaroari buruz hitz egingo dugu.

Zenbat zineten etxean?

8. Gurasoak eta sei anai-arreba.

Etxekolanak nola banatzen zenituzten?

Denon artean egiten genituen, baina amak zuen ardura gehien. Aitak etxetik kanpora egiten zuen lan eta gu ikasketekin... Baina denok laguntzen genuen.

Nola gogoratzen duzu eskolako sasoia?

Ikasgela, arbela, tizak... Teknologiarik gabe. Zoriontsu ginen. Hori bai, neskak eskola batean eta mutilak beste batean, ez geunden elkarrekin.

Nolako izan zen zure haurtzaroa?

Oso zoriontsua izan nintzen. Etxean maitasunez betetako giroa genuen eta errespetuzkoa. Telebistarik ez zegoen eta irratia inguruan elkartzen ginen, edo hitz egin eta elkarri entzuten genion...

Zer alde ikusten duzu zure eta gaur egungo haurtzaroen artean?

Teknologiarik ez zegoen eta, beraz, gurekin jolasten genuen, kaxak, panpinak... Ez genuen gaur egungo jostailu modernorik. Horrez gain, harrapaketatara eta ezkutake-



tara ere jolasten genuen, hemengoaren antzera. Kanean eta etxean barrukaldean zeuden patioetan jolasten genuen. Ez zegoen horrenbeste auto eta lasai jolasten genuen kanean.

Zer izan da Eibartik gehien harritu zaituena?

Hasieran itxiak zinetela iruditu zitzaidan, baina pixkanaka konfiantza hartzen joan gara eta orain bertoko lagunak ere badituz. Klima ere oso bestelakoa da. Gure herrian uda eta negua besterik ez dugu eta hemen, berriz, lau urtarok. Hango negua ere ez da hain hotza...

Zelako ikaslea zinen?

Ona. Ume gehienak ginen ikasle onak, jolas elektronikorik eta horrelakorik ez izatean... denbora gehiago dedikatzen genion ikasteari, eta ikasteko ohitura ere oso barneratuta genuen, gure etxean bai behintzat.

Nola konpontzen zineten Internet, ordenagailu... gabe?

Liburuak eta koadernoak erabiltzen genituen, eskuz idazten genuen, informazioa liburuetan bilatzen genuen... Internet eta ordenagailuak existitzen ez zirenez, haien falta ere ez genuen igartzen.

Zein zen lehen eta da orain zure jatekorik gustokoena?

Hango frijoleak, hemengo baba gorriak izugarri gustatzen zitzaizkidan eta zaizkit orain ere.

Eta hemengo jatekoen artean gustokoena?

Bakailaoa pil-pil erara izugarri gustatzen zait.

Zer da Eibartik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Eibartik dena gustatzen zait, paisaiak, lorategiak... Oso hiri polita da. Eskailera mekanikoak ere berriak dira niretako, merkatal zentroetan ikusiak nituen baina herri barruan ez. Egia esan, ez dut ezer txarrik esateko Eibarri buruz.

Noiz sartu zen telebista zuen etxean?

Umea nintzenean. Zuri-beltzean lehenengo eta koloretan gero. Bi kate besterik ez zeuden eta aginterik ez zegoen! Katez aldatzeko sofatik altxatu behar!

Nora joaten zineten oporretara?

Amaren adeko osaba-izeba batzuen finkara joaten ginen, eta oso ondo pasatzen genuen, lehengusuekin jolasten, errekan bainatzen... Opor zoragarriak ziren.

Zelan konpontzen zara teknologia berriekin?

Ez naiz oso aditua baina nahiko ondo moldatzen naiz. Irakaslea izan naiz eta ondo egokitzen joan naiz iristen ziren teknologietara.

Zein izan da asmakizunik onena?

Ezingo nuke bakararra aukeratu, adibidez telebistak eta telefonoak asko erraztu dute pertsonen arteko komunikazioa, zer egingo genuke orain labadorarik gabe...



Gabonak ekintzaz beterik datoz

Ia konturatu gabe, gainean ditugu Gabonak. Aurten ere ekintza ugari egongo dira herrian eta egun zoragarriak pasatzeko aukera izango dugu.

GABONETAKO HAUR PARKEA

Haur parkea 2 eta 12 urteko umeei zuzenduta dago, opor sasoiari lagunekin Astelena frontoian disfrutatzeko eta ondo pasatzeko.

- Sarrerak: 3 euro edo doan Eibar Merkatal Gune Irekiaren bonoarekin.
- Sarrerak ordu eta erdirako balio izango du.
- Abenduaren 23tik 30era eta urtarrilaren 2tik 4ra: 11:00-14:00 / 16:30-20:30



IZOTZ PISTA

Udalak eta Eibar Merkatal Gune Irekiak ume eta helduentzako izotz pista jarriko dute Errebalen abenduaren 22tik urtarrilaren 6ra, honako ordutegian: Abenduaren 23, 26, 27, 28, 29 eta 30ean, eta urtarrilaren 2an eta 4an: 11:00-14:00 / 17:00-21:00; eta abenduaren 24an eta 31an, eta urtarrilaren 5ean eta 7an: 11:00-14:00 / 17:00-19:30

- Sarrerak: 3 euro edo doan Eibar Merkatal Gune Irekiaren bonoarekin.
- Sarrerak ordu eta erdirako balio izango du.



OLENTZEROREN KALEJIRA

Etxeetan opariak banatu aurretik, Olentzerok kalejira egingo du hilaren 24an herriko kaleetan zehar. Kalejira 11:30ean hasiko da Urkizun eta Olentzerok Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoak, Adolfo Jainagaren ikasleak izango eta Eibarko Kantuzaleak izango ditu lagun ibilbidean zehar. Gero, 12:30ean, Olentzerok umeen azken eskutitzak jasoko ditu udaletxean. Gogoratu, hala ere, 11tik 23ra Olentzeroren buzoia egongo dela Pegoran eta Portalean. Esan Olentzero zer jaso nahi duzun!



ERREGEEN KABALGATA

Erregeek harrera beroa jasoko dute urtarrilaren 5ean, 19:00etan, Eibarko Musika Bandaren laguntzarekin Untzagatik hasiko den kabalgatan. Baina aurretik, dantza izango da protagonista, 17:00etan Neledantza eskolakoek, Ballet Eibarresekoek, Kaxa gunekoek, Koa dantza eskolakoek eta Gimnasia Erritmikokoek emanaldia eskainiko baitute Ipurua kiroldegian. Ikuskizun hau ikusteko sarrerak abenduaren 21an jarriko dituzte salgai, 09:00etan, Ipurua kiroldegian.



GABONETAKO EMANALDIAK

Aipatutako ikuskizunetaz gain, herriko eragileek beste hainbat saio prestatu dituzte Gabonetarako:

- Kaxa dantza gunea
Abenduaren 14an, 18:00etan, Errebal Plazan.
- Koa dantza eskola
Abenduaren 15ean, 19:00etan, Errebal Plazan.
- Sostoa abesbatza, Eibarko Koro Gaztea eta J.B. Gisasola koroa.
Abenduaren 15an, 20:00etan, Karmengo elizan.
- Eibarko Musika Banda.
Abenduaren 17an, 12:30ean, Coliseon.
- J.B. Gisasola musika eskola.
Abenduaren 20an, 18:30ean, Coliseon.
- Eibarko Koro Gaztea ('Neguko ahotsak' diskoaren aurkezpena).
Abenduaren 23an, 19:00etan, Coliseon.
- Usartza Txistulari Banda (txistu ikasleak, Sostoa, pianoa, perkusioa eta metalak).
Abenduaren 24an, 11:45ean, Untzagan.





HIZKI-ZOPA

T	Z	R	D	H	E	N	L	X	U	K
G	X	X	N	K	G	G	U	S	O	A
I	T	A	D	Z	A	L	O	I	A	T
L	X	O	K	J	I	R	A	F	A	U
D	I	T	P	U	T	X	O	R	I	A
O	M	S	P	L	R	H	R	Z	D	B
R	I	O	S	A	A	R	T	O	M	E
T	U	A	R	K	O	X	A	G	G	E
O	O	P	A	I	X	T	N	U	G	T
K	P	U	U	L	S	S	U	X	U	U
A	X	R	R	E	D	R	U	Z	I	A
L	A	E	T	N	A	F	E	L	E	G

- ANIMALIAK

- | | | |
|------------|-------------|----------|
| 1 txakurra | 5 elefantea | 9 zaldia |
| 2 katua | 6 jirafa | 10 otsoa |
| 3 untxia | 7 tximino | 11 uso |
| 4 dortoka | 8 leurde | 12 txori |

7 DESBERDINTASUN






GURUTZEGRAMA

ANIMALIAK GURUTZEGRAMA

1. Zaurka egiten du
2. Etxeko animalia da
3. Uetan bezi erakolatu da
4. Arrotzaren antza du
5. Uekia animalia ezaguna
6. Animalia polita da oso berrak da
7. Olatzaren marea
8. Salto egiten du, bere kotoa hila da



SUDOKUA

	9		7	8	5	1		3
4	8	5		1		9		
1		3	2		9		8	
6	1	4			7		9	
			6	5	1	4	2	7
5		7		9	3		6	1
		1	9	3	8	2		
3	4		5	6		7		8
	5	2				6	3	9



7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **URTARRILAK 12** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ASTEKO IRABAZLEA

Aupa EMILIA, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko motxila zuretako! ZORIONAK!

**Izar saltzailea** 6 urtetik aurrera

Xubani ideia gaitza bururatu zaio dirua irabazteko: izarrak biltzea eta haiek saltzea. Hastapeneko lilura eta arrakasta iragan eta Xuban ohartuko da bere ekintzek badutela ondoriorik ingurumenean eta jendearengan.

**Londonen galduta** 8 urtetik aurrera

Hiri handia da London. Bertan gazteentzat antolaturiko musika jaialdi batera joango dira Basakabiko lagunak. Jaialdia Londoneko parkerik famatuenean izango da, Hyde Park deiturikoan, hain zuzen. Hala ere, ez da dena uste bezala aterako. Hasieratik bi taldetan banatuko dira nahi gabe, eta hainbat abentura eta pasadizo biziko dituzte hiri ezezagun horretan.

**Gerra** 10 urtetik aurrera

Gerra gaixotasun xuxurlatu bat bezala jaiotzen da, eta gorrotoak, zapaldu-nahiak eta ezinikusiak elikatzen dute. Gerra da, beharbada, inoiz asmatu den produkturik iraunkorrena. Inoizko konplexutasunik handieneko mundu batean, memoria lokartura jauzi egiten duen zuzi baten parekoa da poema ilustratu hau.

**BITXIKERIAK**

Goiko betazalaren betile-kopurua 150 eta 200 artekoa da. Beheko betazalean 80 eta 90 betile artean ditugu.



Hontzak dira kolore urdina ikus dezaketen hegazti bakarrak.

Giza hortzak harriak bezain gogorrak dira ia.





Peru eta Elur

Peruren familia Elur izeneko txakur batekin bizi zen, baina gabon batzuetan hil egin zen. Peru oso triste zegoen bere lagunik onena zelako. Gabonak iristen zirenean, Peruk Olentzero eta Mari Domingiri gauza bera eskatzen zien: Elur etxera itzultzea.

Abenduak 25 goizean esnatzen zenean Elurri deika hasten zen berarekin jolasteko gogoz. Etxea opariz beteta egon arren Elur ez zen ageri.

Hori dela eta, Peru guztiz haserretu zen eta, behin, amari esan zion:

- Gauza bakarra eskatu diet eta ez didate kasurik egin, Elur ez da itzuli.

Amak, orduan, azaldu zion norbait hiltzen denean, nahiz eta begiekin berriro ez ikusi, berarekin pasatako momentuak gogoratuz bizirik mantentzen dugula. Triste jarraitu arren berarekin akordatuz marrazki bat egitea erabaki zuen.

Une hartatik aurrera, Elurrentzat marrazkiak egiten jarraitu zuen. Horrela, hurrengo gabonetan haserretzeari utzi zion eta gabonak heltzeko poza berreskuratu zuen.



IZARO ARRIOLA

ZU BAI MARGOLARI!

